

Datorren astean autoenpleguari buruzko ikastaro txiki batzuen ziklo bati ekingo diogu; ikastaro horiek, gainera, urtean zehar errepikatzen joango dira. Prestakuntza-ekintza hauen helburua ekintzailea enpresa-kudeaketari begira orientatzea, motibatzea eta prestatzea da, eta enpresa-proiektu bat arrakastaz zuzentzeko behar dituen gaitasunei buruz gogoeta eta azterketa egiten laguntzea. Beren lan aukera autoenplegua izan daitekeela uste duten eta kontzientzia ekintzailea piztu eta proiektu ekintzaileen garapena sustatu nahi duten pertsonen zuzenduak daude ikastaro hauek. Ikastaroak lau eratakoak dira, eta lau helburu desberdin dituzte; hartara, hala nahi duenak ibilbide osoa egiteko aukera du, lau moduluetatik pasatuz.

EKIN

Beren lan aukera autoenplegua izan daitekeela uste duten pertsonentzako tailerra. Tailerrak kontzientzia ekintzailea piztu eta jendea autoenplegurantz motibatu nahi du.

Iraupena	Noiz da?	Ordutegia
6 ordu	10.02.22	8:30etik 14:30era
	10.05.10	
	10.10.04	

PROIEKTATU

Negozio-ideiak aurkitzen ikasteko tailerra. Sorkuntza eta informazioa bilatzeko teknikak aplikatuta. Helburua da pertsona bakoitzaren gaitasunekin eta ezagupen eta interes profetionalekin bat datozen negozio-ideiak aurkitzen laguntzea.

Iraupena	Noiz da?	Ordutegia
10 ordu	Otsailaren 24an eta 25ean	9:00 – 14:00
	Ekainaren 3an eta 4an	
	Urriaren 21ean eta 22an	

EGIN

Balio eta eskumen ekintzaileak garatzeko proiektu ekintzaile batean hastea erabaki dutenei zuzendutako tailerra.

Tailerrak izaera praktikoko eta oinarrizko metodologia komuna duten trebatze-ekintzak ditu.

- 1. ARLOA: Iniziatiba hartu eta gauzak gertaraztea gure ardurapean hartu.
- 2. ARLOA: Ekintzaileen balioak eta pentsamoldea:
- 3. ARLOA: Nola izan lehiakorra gero eta azkarrago mugitzen den mundu globalizatu batean.
- 4. ARLOA: Bezeroarekiko eta inguruarekiko orientazioa

- 5. ARLOA: Gatazken azterketa eta konponketa
- 5. ARLOA: Lidergo ekintzailea

Iraupena	Noiz da?	Ordutegia
24 ordu (4 ordu arlo bakoitzak)	Apirilaren 23tik 30era Ekainaren 18tik 25era Azaroaren 22tik 29ra	9:00 – 13:00

FINKATU

Ikastaro batez ere praktikoa; alde batetik negozio-ideiaren diagnostikorako balio nahi lukeena, eta bestetik enpresa-plana zehazteko tresna izan litekeena. Ikastaroan zehar pertsona bakoitzak bere enpresa-proiektuan kontuan izan beharreko alderdi nagusiak (legalak, fiskalak, kokapenari, salmentei, finantzei eta abarrei dagozkienak) aztertuko dira.

Ikastaro hau beren negozio-ideia jada martxan jartzea erabaki duten pertsoneri zuzendua dago.

Iraupena	Noiz da?	Ordutegia
50 ordu	Martxoaren 15etik 26ra	9:00 – 14:00
	Azaroaren 8tik 19ra	

Informazioa, inskripzioak eta ikastaro eta tailerrak emango diren tokia:

Bidasoa Bizirik

Autoenpleguaren Departamentua
Ama Birijina Mirarietakoaren kalea z/g
(Zaharren Udal Egoitzaren parean)
20304 IRUN